

Ahots bilketa «makinei eta teknologia berriei» euskara irakasteko

Jon Agirre :: 02/10/2023



'Batu ditzagun gure ahotsak'

Herritarrek euskarazko ahotsak sareko atari batean grabatzeko kanpaina hasi dute teknologiek eskatzen dituzten testuzko eta ahozko datu masa erraldoiak lortu ahal izateko



Jon Agirre

Donostia

Lunes, 2 de octubre 2023, 14:53

Mundu digitalak, adimen artifiziala, algoritmoak eta datu base erraldoiak. Baliteke eguneroko jardunetik urruti geratzen diren munduak izatea, baina euskarak «atzean geratu» nahi ez badu guztietan presentzia bermatzea beharrezko du, baita horiek euskarara ekartzea ere. Hala defendatu dute hainbat eragilek hainbat agerralditan eta ildo horretan koka daiteke astelehen honetan Donostian aurkeztu duten 'Batu ditzagun gure ahotsak' kanpaina.

Helburua teknologia berriak lantzeko beharrezkoak izango diren datu eta materialak lortzea izango da, bai euskarazko ahotsak zein grabazioak, ostean, hauekin «makinei eta teknologia berriei» euskara irakasteko. «Zenbat eta euskarazko ahots eta grabazio gehiago izan, orduan eta zabalagoa izango da teknologia berriek lantzeko izango duten datu eta materiala», azaldu dute. Aurkezpen ekitaldian izan dira Bingen Zupiria, Eusko Jauralaritzako bozeramaile eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua; Ana Olo, Nafarroako Gobernuako bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilaria; eta teknologia berriekin eta euskararekin zerikusia duten eragileak, besteak beste, Librezaleak edota Bagera elkarteko kideak.

Hartarako, 'Gaitu'-ren webgunearen bitartez bi izango dira mahai gainean jarritako proposamenak: idatzita dagoen esaldi bat irakurtzea eta beste hiztun batek grabatutako esaldi bat balioztatzea. Lehenean atariak esaldi bat proposatuko dio erabiltzaileari honek ozenki irakur dezan grabatzen den bitartean. Behin eginda, atariak beste bat proposatuko dio erabiltzaileak nahi adina ekarpen egiteko aukera izanda. Bigarren aukeran, beste hiztun batek grabatutako esaldi bat balioztatu ahalko du erabiltzaileak, hau da, esaldian jartzen duena eta ulertzen dena ontzat ematea ongi badago, ongi dagoela adieraziz, eta zuzena ez bada, egokia ez dela ohartaraziz. Aukera hau ere nahi adina aldiz errepika daiteke.

Izan ere, egungo teknologiek testuzko eta ahozko datu masa erraldoiak eskatzen dituzte. Hizkuntza nagusi eta hegemonikoen kasuan erraz lor ditzakete, baina gutxien kasuan -euskara esaterako- zaila suertatzen da. Eta pasa den astean [Hitz zentroarekin sinatutako hitzarmena](#) aurkezteko ekitaldian Eneko Agirre zuzendariak azaldu zuen bezala, horrek garapena baldintzatzen du. Adibide modura jarri zuen ChatGPT elkarrizketa sistema eta berau bezalakoak euskaraz ere beste hizkuntzen pare aritzeko unea urrun dela oraindik.

Ez da hizkuntza nagusi edo hegemonikoekiko euskara duen arrakalaz mintzo diren lehen aldia. 2020an pausu garrantzitsua eman zen [Hitz zentroaren sorrerarekin](#), UPV/EHUko IXA eta Aholab ikerketa taldeen batzearekin gauzatu zena. Bi urte geroago heldu zen Eusko Jauralaritzaren '[Gaitu](#)' [ekintza-plana](#), «administrazio publikoak hizkuntza-teknologiaren bultzatzaile izateko» jaioa eta «ingurune digitalean euskararen presentzia eta euskarazko tresnen eta edukien sorkuntza sustatzea» helburu nagusi zuena. Astelehen honetan aurkeztutako kanpaina ere ekintza planean kokatzen da, pasa den astean aurkeztu zen Hitz zentroko hitzarmena bezala.

Agerraldian Zupiriak beste proiektu batzuk ere aipatu ditu; horien artean, 'Itzuli' itzultzaile neuronal edo Euskal Herriko Unibertsitatearekin (EHU) egindako ikerketarekin lotutako kolaborazioak ahots espontaneoaren transkripzioa hobetzeko, euskararen gaitasun maila automatikoki detektatzeko edo desgaitasuna duten pertsonen ahots pertsonalizatuaren teknologia helarazteko.

Ildo horretan, Ollok Euskarabidea Institutuak garatutako 'Sarean euskaraz', 'Euskara aleka' eta 'Euskararen oihartzunak' podcastak, 'Mattin eta Kattalin' haurrentzako bideo bilduma edo Wikipediarekin egindako lana ekarri ditu gogora.

- Temas
- [Euskera](#)

Noticias para ti



«Shani está viva, pero en estado crítico. Actúen rápido para rescatarla»



Compañeros de Juan José Ballesta se posicionan sobre la denuncia



Gómez se reúne en el Parlamento con Maestre y analiza políticas medioambientales de la UE

Publicidad

Publicidad

Te puede interesar

Publicidad

Publicidad